

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**DONOSTIAKO UDALA**

**Hirigintza Sostengagarria**

*Ebazpena, 2021eko ekainaren 18koa, Donostiako Udaleko Hirigintza Sostengagarriko zinegotziarena, Donostiako bizitegi eraikinak eta etxebizitzak irisgarri egiteko eta birgaitzeko diru laguntzen 2021eko ekitaldirako dirulaguntzen deialdia egiten duena.*

Donostiako Udalak diru-saila bat esleitu du bere aurrekontuetan, udalerrri osoan bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak emateko, Donostiako bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzaren bidez. Diru-laguntza horien kudeaketa Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin hitzartu du.

Donostiako Udalbatzak, 2018ko ekainaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen behin betiko onartzea Donostiako bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak irisgarri egiteko eta birgaitzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituen Ordenantza.

Ordenantza hori 2018ko uztailaren 17ko 137 zenbakiko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eman zen argitaratu.

Udal-ordenantza horren 10. artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

*Lehenik. Xedea.*

2021eko ekitaldirako dirulaguntzen deialdia onartzea, lehiaketarik gabeko araubidean, Donostiako bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak irisgarri egiteko eta birgaitzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzen dituen 2018ko ekainaren 21eko Ordenantza xedatutakoaren arabera.

*Bigarren. Xedapen arautzailea.*

Pertsona eta erakunde interesdunek egiaztatu beharreko baldintza orokorrak, aurkeztu eta izapidetzea, dirulaguntzak emateko prozedura, aurkeztu beharreko dokumentazioa, horien ordainketa, gastuaren eta xedearen justifikazioa eta, oro har, dirulaguntza hauei buruzko alderdi guztiak 2018ko ekainaren 21ean onartutako Ordenantza aurreikusitakoaren arabera arautuko dira. Ordenantza horren bidez, Donostiako bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak irisgarri egiteko eta birgaitzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dira (2018ko uztailaren 17an 137. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua).

*Hirugarren. Diru laguntzari dagokion aurrekontu kreditua eta erabilgarri dauden kredituen barruan deitutako diru laguntzen gehieneko zenbateko osoa.*

1. Erabilgarri dauden aurrekontu aukerak mugatuko dute diru laguntzen emakida, Ordenantza horren lehen xedapen gehigarriaren arabera.

**AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN**

**Urbanismo Sostenible**

*Resolución de 18 de junio de 2021, de la Concejala Delegada de Urbanismo Sostenible del Ayuntamiento de San Sebastián, por la que se convocan subvenciones para la accesibilidad y rehabilitación de los edificios residenciales y viviendas de San Sebastián correspondientes al ejercicio 2021.*

El Ayuntamiento de San Sebastián consigna en sus presupuestos una partida destinada a conceder subvenciones para la rehabilitación de edificios residenciales y viviendas en todo el término municipal por medio de la correspondiente Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones para la rehabilitación de edificios residenciales y viviendas de San Sebastián, cuya gestión ha conveniado con la Entidad Pública Empresarial de Vivienda Donostiako Etxegintza.

El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión celebrada el día 21 de junio de 2018, acordó aprobar definitivamente la Ordenanza por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la accesibilidad y rehabilitación de los edificios residenciales y viviendas de San Sebastián.

Dicha Ordenanza fue publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa núm. 137 de 17 de julio de 2018.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 10 y la Disposición Adicional Primera de la citada Ordenanza municipal,

RESUELVO

*Primero. Objeto.*

Aprobar la convocatoria de subvenciones, en régimen de concurrencia no competitiva, conforme a lo dispuesto en la Ordenanza aprobada el 21 de junio de 2018, por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la accesibilidad y rehabilitación de los edificios residenciales y viviendas de San Sebastián, correspondientes al ejercicio 2021.

*Segundo. Disposición reguladora.*

Los requisitos generales que han de acreditar las personas y entidades interesadas, la presentación y tramitación, el procedimiento para la concesión de las subvenciones, la documentación a presentar, su abono, la justificación de gasto y destino, y en general cuantos aspectos relativos a estas subvenciones, se regirán por lo previsto en la Ordenanza aprobada el 21 de junio de 2018, por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la accesibilidad y rehabilitación de los edificios residenciales y viviendas de San Sebastián, publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa núm. 137 de 17 de julio de 2018.

*Tercero. Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones convocadas dentro de los créditos disponibles.*

1. La concesión de las subvenciones estará limitada por las disponibilidades presupuestarias existentes, de acuerdo con la Disposición Adicional primera de la citada Ordenanza.

2. Dirulaguntza Donostiako Udalaren 2021eko ekitaldirako aurrekontuko 780.00.00 kontu sailari egotziko zaio («Donostiako udalerriko etxebizitzak eta bizitegi eraikinak zaharberritzeko dirulaguntzak»).

3. Deitutako dirulaguntzen zenbateko maximo osoa 2.696.800,44 €-koa da (bi milioi seiehun eta laurogeita hamasei mila eta zortziehun euro eta berrogeita lau zentimo).

4. Deialdi honetan behin-behinean eman beharreko dirulaguntzen bolumen osoak ez du gaudituko dagokion aurrekontu esleipena.

Horrenbestez, behin zenbateko hori agortu denean ezin izango da bestelako diru laguntzarik eman, ezta behin-behinean ere. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren web orrian argitaratuko da kreditua agortu izana, zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez, eta ebazteke dauden eskaera guztiak eman go zaie horren berri.

*Laugarren. Diru laguntzak ematearen helburua, baldintzak eta xedea.*

Aditza emandako ordenantzaren 1. artikuluan arabera, deialdi honen helburua da Donostiako bizitegi eraikinak eta etxebizitzak irisgarri egiteko eta birgaitzeko dirulaguntzak ematea.

Birgaitze-obretarako dirulaguntzat hartuko da funts publikoetatik ematen den dirua, zuzeneko kontraprestazio gabe, aipatutako ordenantzaren 6. artikuluan diruz laguntzeko modukotzat kalifikatutako obrak egiteko.

Era berean, xedea da hutsik dauden etxebizitzak alokairuko merkatuan, merkatuko prezioan baino prezio txikiagoan, jar daitezela sustatzea, eta, azken finean eta zeharka, eraikuntzaren sektorean enplegua sor dadin eta/edo mantent dadin sustatzea.

Deialdi honen ondorioetarako, eta Ordenantzak adierazten duenaren arabera, «etxebizitza hutsik dagoela» ulertuko da, baldin eta diru laguntza jasotzeko eskaera aurkeztu baino 3 hilabete lehenago, gutxienez, Biztanleen Udal Erroldan inor jasota ez badago etxebizitza horretan.

Baldintzak Ordenantzan eta deialdi honetan ezarritakoak izango dira.

*Bosgarren. Lehentasunez birgaitu beharreko eremua definizioa.*

Ordenantzaren 6.1.a.1) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako birgaitzeko lehentasunezko beharra duten eremuak izendatzen dira, dirulaguntza handitze aldera.

Birgaitzeko lehentasunezko beharra duten eremu izendatzen dira soilik irisgarritasun-lerroko dirulaguntza handiagoez eskura dezaten, baldin eta eremu horietako eraikinetan ez dituztelako instalatutako badituzte igogailuak, arrapalak eta plataformak. Ez zaie igoyerarik aplikatuko gainerako lerroei: eraikinen Ikuskapen Teknikoak eskatutako obrei, elementu pribatiboei buruzko obrei, ezta alokairua sustatzeko obrei ere.

6.1.a.1) artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, eremu horietako eraikinek diru-laguntza gehigarria izango dute linea horretarako. Hain zuzen ere, BEZik gabe, diruz lagun daitekeen gastuaren % 10 gehiago jasoko dute, 10.000 € arte gehienez ere.

Zenbateko gehigarri horrek handitu egingo du irisgarritasun-linearako orokorrerako aurreikusita dagoen dirulaguntza (diruz lagun daitekeen gastuaren % 20, BEZik gabe, 20.000 euro arte gehienez). Ondorioz, diruz lagun daitekeen gastuaren % 30 lagunduko da, BEZik gabe, 30.000 € arte gehienez ere.

Lehentasunez birgaitu beharreko eremuen definizioak honako eremu hauetan dauden eraikin guztiak hartzen ditu barne:

— Altza, Egia, Intxaurren, Loiola, Martutene eta Miracruz-Bidebieta auzoak.

2. La subvención se imputa a la partida 780.00.00, «Ayudas para rehabilitación de edificios residenciales y viviendas en San Sebastián», del presupuesto del Ayuntamiento de San Sebastián para el ejercicio 2021.

3. La cuantía total máxima de las subvenciones convocadas es de 2.696.800,44 € (dos millones seiscientos noventa y seis mil ochocientos euros y cuarenta y cuatro céntimos).

4. El volumen total de subvenciones a conceder provisionalmente en la presente convocatoria no excederá de la correspondiente consignación presupuestaria.

No procederá, por tanto, la concesión provisional de nuevas subvenciones una vez agotado dicho importe, haciéndose público el agotamiento del crédito en el «Boletín Oficial de Gipuzkoa» y en la web municipal, mediante la resolución correspondiente de la concejala delegada que será notificada a todas las solicitudes pendientes.

*Cuarto. Objeto, condiciones y finalidad de la concesión de la subvención.*

Es objeto de la presente convocatoria, en virtud del art. 1 de la Ordenanza indicada, la concesión de subvenciones para la accesibilidad y rehabilitación de los edificios residenciales y viviendas de San Sebastián.

Se entenderán por subvención para obras de rehabilitación la disposición dineraria de fondos públicos sin contraprestación directa para la realización de las obras calificadas como subvencionables en el artículo 6.º de la citada Ordenanza.

Así mismo, tiene por objeto la concesión de subvenciones para el fomento de la puesta a disposición en el mercado de alquiler de vivienda vacía a precios más bajos que los del mercado y, en última instancia, y de forma indirecta, el impulso de la creación y/o mantenimiento del empleo en el sector de la construcción.

A efectos de esta convocatoria, según indica la Ordenanza, se entiende por «vivienda vacía» aquella en la que no conste en el padrón municipal de habitantes persona alguna inscrita con una antelación mínima de 3 meses a la presentación de la solicitud de ayudas de obras a subvencionar.

Las condiciones serán las establecidas en la Ordenanza y en la presente convocatoria.

*Quinto. Definición de zonas de necesidad preferente de rehabilitación.*

A los efectos de lo previsto en el art. 6.1.a.1) de la Ordenanza, se definen zonas de necesidad preferente de rehabilitación a efectos de incremento de la subvención.

La definición de zonas de necesidad preferente de rehabilitación se refiere exclusivamente a la línea de accesibilidad, comprensiva de instalación de ascensores, rampas y plataformas en inmuebles que carezcan de dichas instalaciones. No se aplicará incremento alguno al resto de las líneas: Obras requeridas por la Inspección Técnica de Edificios, obras relativas a elementos privativos, ni obras para fomento de alquiler.

En aplicación de lo previsto en el art. 6.1.a.1), las edificaciones comprendidas en estas zonas tendrán una subvención adicional para dicha línea, del 10 % del gasto subvencionable, excluido IVA, hasta un máximo de 10.000 €.

Esta cantidad adicional incrementará el 20 % del gasto subvencionable, excluido IVA, hasta un máximo de 20.000 €, previsto con carácter general para la línea de accesibilidad. En consecuencia, se subvencionará el 30 % del gasto subvencionable, excluido IVA, hasta un máximo de 30.000 €.

La definición de zonas de necesidad preferente de rehabilitación abarca al conjunto de edificaciones comprendidas en las zonas:

— El conjunto de los barrios de: Altza, Egia, Intxaurren, Loiola, Martutene y Miracruz-Bidebieta.

– Eta, gainera, honako unitate txiki hauek: Morlans, Heriz – Aitzgorri, Añorga, Errekalde, Manteo, Amara Zaharra, Parte Zaharra, Sagues, Iza, Igeldo, Ospitaleak eta Hipodromo– Bugati.

Deialdiarekin batera doa planoak eta eremu horietan sartutako helbideen zerrenda jasotzen duen informazio-eranskina.

*Seigarren. Diru laguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua.*

Ordenantza arautzaile horren 4. artikulutik 8. artikulura bitarteko artikuluetan ezartzen diren baldintzak, onuradunarenak zein diruz laguntzeko moduko jarduerarenak, bete beharko dira dirulaguntza eskatzeko.

*Zazpigarren. Prozedura bideratzeko eta ebazteko eskumena duten instrukzio organoak adieraztea.*

Aipatutako Ordenantza arautzailearen indarrez, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa izango da diru laguntza horien instrukzio organoa, Udalaren erakunde laguntzailea den heinean.

Deialdi honetan arautzen diren diru laguntzak emateko prozeduren behin betiko ebazpena, berriz, Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariari dagokio, edo horrek ordezkari jartzen duen pertsonari.

*Zortzigarren. Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea 2021eko ekainaren 29an hasiko da, 9:00etan, eta 2021eko azaroaren 2an amaituko da, 14:00etan.

Edonola ere, aurrekontu kreditua agortzen bada, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren web orrian jakinaraziko da, zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez. Ebazteke dauden eskaera guztiei ere jakinaraziko zaie kreditua agortu dela, eta amaitutzat joko da eskaerak aurkezteko epea.

*Bederatzigarren. Eskaerak aurkezteko tokia eta modua.*

Eskaerak egiteko, eskaera formulario espezifiko erabili beharko da eta oso-osorik bete beharko da formulario hori.

Pertsona juridikoek baliabide elektronikoak erabilia eskatu eta bete beharko dituzte prozedura honen tramite guztiak. Horretarako, Udalaren web orriaren bidez sartu beharko dira tramite espezifikoak, bertan ezarritako betekizunen arabera:

[www.donostia.eus/Tramiteak](http://www.donostia.eus/Tramiteak).

Pertsona fisikoek baliabide elektronikoak erabilia edo aurrez eskatu eta bete ahal dituzte prozedura honen tramite guztiak.

Eskaera elektronikoak Udalaren web orriaren bitartez aurkeztuko dira: [www.donostia.eus/Tramiteak](http://www.donostia.eus/Tramiteak).

Aurrez aurreko eskaerak, berriz, hemen aurkeztu ahal izango dira:

– Etxegintzaren bulegoetan.

– Udalinfoaren bulegoetan.

Eskaera elektronikoak sinatzeko, berriz, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 10. artikuluan aintzat hartzen diren sinadura elektronikoko sistemetako bat erabili beharko da.

Donostiako Udalak dohainik eta berehala jaulkitzen ditu pertsona fisikoak identifikatzeko eta sinatzeko ziurtagiri aurreratuak (B@kQ). Horretarako, Udalinfoaren bulegoetako batera hurbildu beharko da eta NANarekin edo AIZrekin identifikatu beharko da.

*Hamargarren. Ebazpen eta jakinarazpen epea.*

1. Ordenantzaren 12. artikuluan arabera, diru laguntza emateko baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, instrukzio organoak Donostiako Etxegintzako zuzendari gerentearen

– Y, además, las Unidades Menores de: Morlans, Heriz-Aitzgorri, Añorga, Rekalde, Manteo, Amara Zaharra, Parte Vieja, Sagües, Iza, Igeldo, Hospitales e Hipodromo-Bugati.

Se adjunta anexo informativo con plano y listado de direcciones incluidas en dichas zonas.

*Sexto. Requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.*

Los requisitos exigidos para solicitar la subvención, tanto de los beneficiarios como de la actuación subvencionable, serán los exigidos en los arts. 4 a 8 de la Ordenanza reguladora citada.

*Séptimo. Indicación de los órganos competentes para la instrucción y resolución del procedimiento.*

En virtud de la Ordenanza reguladora citada, será órgano instructor de las presentes subvenciones la EPE Donostiako Etxegintza, en cuanto a Entidad colaboradora del Ayuntamiento.

La resolución definitiva de los procedimientos de concesión de las subvenciones reguladas en la presente convocatoria corresponderá a la concejala delegada de Urbanismo Sostenible o cargo que le sustituya.

*Octavo. Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a las 9:00 horas del 29 de junio de 2021, y finalizará a las 14:00 horas del día 2 de noviembre de 2021.

En el supuesto de agotamiento del crédito presupuestario se hará público dicho agotamiento del crédito en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la web municipal, mediante la resolución correspondiente de la concejala delegada que será notificada a todas las solicitudes pendientes y cerrándose el plazo de presentación.

*Noveno. Lugar y modo de presentación de solicitudes.*

Las solicitudes deberán realizarse conforme al formulario específico de solicitud y dicho formulario deberá cumplimentarse en su totalidad.

Las personas jurídicas deberán solicitar y realizar todos los trámites de este procedimiento utilizando medios electrónicos. Para ello, deberán acceder al trámite específico a través de la web municipal conforme a los requerimientos en ella establecidos:

[www.donostia.eus/Trámities](http://www.donostia.eus/Trámities).

Las personas físicas podrán solicitar y realizar todos los trámites de este procedimiento utilizando medios electrónicos o de manera presencial.

Las solicitudes electrónicas, se presentarán a través de la web municipal: [www.donostia.eus/Trámities](http://www.donostia.eus/Trámities).

Las solicitudes presenciales podrán presentarse en:

– Oficinas de Etxegintza.

– Oficinas de Udalinfo.

Las solicitudes electrónicas deberán firmarse utilizando algunos de los sistemas de firma electrónica contemplados en el artículo 10 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Común de las Administraciones Públicas.

El Ayuntamiento de San Sebastián emite de manera gratuita e inmediata certificados avanzados de identificación y firma para personas físicas (B@kQ). Para ello, es preciso personarse en alguna de las Oficinas de Udalinfo e identificarse con DNI o NIE.

*Décimo. Plazo de resolución y notificación.*

1. De conformidad con el art. 12 de la Ordenanza, una vez comprobado el cumplimiento de los requisitos para la concesión de la subvención el órgano instructor notificará al/a la soli-

ebazpena jakinaraziko dio eskatzaileari —diru laguntza behin behineko ematearen ebazpena—, betiere egiaztapen hori egin eta hurrengo egunetik hasita 30 egun balioduneko epean. Ebazpen horretan aurkeztutako proiektuen edo aurrekontuen arabera zenbatetsi den diru laguntza jasoaraziko da, besteak beste. Zenbateko hori aldatu ahal izango da egindako obren amaierako kostuaren ondorioz. Era berean, diru laguntza behin-behineko ematearen ebazpen horretan Ordenantzaren 13. artikuluan eskatzen den dokumentazioa aurkezteko epea jasoaraziko da (gehienez 18 hilabeteko epea izango da).

2. Ordenantzaren 14. artikuluan arabera, diru laguntzen behin betiko emakida tramitatuko da 13. artikuluan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu eta hurrengo 60 egunen barruan, edo, hala badagokio zuzendu eta hurrengo 60 egunen barruan.

Diru laguntza behin betiko ematearen Ebazpenak diru laguntzak behin-behineko ematearen ebazpena berretsi ahal izango du, edo behin-behinean esleitutako zenbatekoak aldatu ahal izango ditu, edo diru laguntza ukatu ahal izango du. Azken bi kasu horietan, aldatzearen edo ukatzearen arrazoiak aditzera eman beharko ditu.

Ordenantza horretan aurreikusten diren epeak amaitu, eta eskaeren ebazpenak egin eta jakinarazi ez badira, isilbidez eze-tsi direla ulertu ahal izango dute interesdunek. Indarrean dagoen legerian aurreikusten diren administrazio eta jurisdikzio erre-kurtsoak jarri ahal izango dira diru laguntzak emateko, aldatze-ko edo ukatzeko behin betiko ebazpenen aurka.

*Hamaikagarren. Eskaerari erantsi beharko zaion dokumentazioa.*

Ordenantzaren 10. artikuluan adierazten da erantsi beharreko dokumentazioa.

*Hamabigarren. Eskaerak baloratzeko irizpideak.*

Diru laguntzak emango zaizkie pertsona edo jabe erkidego onuradun izaera egiaztatzen dutenei. Diru laguntzak emateko garaian, erregistroko sarreraren ordenari jarraituko dion hurren-kerak ezarriko da —hala badagokio, akatsak zuzendu diren unea edo diru laguntzak emateko betekizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzeko dokumentazio guztia aurkeztu den unea kontuan hartuta—.

*Hamahirugarren. Komunikatzeko edo argitaratzeko bidea.*

1. Behin-behineko zein behin betiko ebazpenen jakinarazpen guztiak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengo artikuluen arabera egingo dira.

2. Agintzen da honako ebazpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA argitaratzea.

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du eta haren kontra aukerako baztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio organo honi, hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiari, bi hilabeteko epean, betiere ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita —hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan arabera eta administrazioarekiko auzi jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 14. artikuluen arabera—.

Donostia, 2021eko ekainaren 18a.—Miren Nekane Arzallus Iturriza, Hirigintza Sostengagarriko zinegotzia. (4468)

citante en el plazo no superior a 30 días hábiles a contar desde el día siguiente a dicha comprobación, Resolución de concesión provisional, del Director-Gerente de Donostiako Etxegintza, en la que, entre otros extremos, constará la subvención estimada, atendiendo a los presupuestos o proyecto presentados. Dicha cantidad estimada podrá verse alterada como consecuencia del coste final de las obras realizadas. Así mismo, en dicha Resolución de concesión provisional se hará constar el plazo (con un máximo de 18 meses) para la presentación de la documentación requerida en el artículo 13 de la citada Ordenanza.

2. De conformidad con el art. 14 de la Ordenanza, la concesión definitiva de las subvenciones se tramitará en el plazo de 60 días siguientes a la presentación de la documentación a que se refiere el artículo 13, o a su subsanación, en su caso.

La Resolución de concesión definitiva podrá ratificar la concesión provisional de las ayudas, modificar los importes adjudicados provisionalmente o denegar la subvención debiendo, en estos dos últimos casos establecer los motivos que fundamentan la modificación o denegación.

Ante el vencimiento de los plazos previstos en la citada Ordenanza sin dictarse y notificarse las respectivas resoluciones de su solicitud los interesados podrán entenderla desestimada por silencio. Contra las Resoluciones definitivas de concesión, modificación o de denegación de las subvenciones podrán interponerse los recursos administrativos y jurisdiccionales previstos en la legislación vigente.

*Undécimo. Documentación que debe acompañarse a la petición.*

La documentación a acompañar es la indicada en el artículo 10 de la Ordenanza.

*Duodécimo. Criterios de valoración de las solicitudes.*

Las subvenciones se otorgarán a quienes acrediten la condición de persona o comunidad de propietarios/as beneficiaria estableciéndose un orden de prelación que atenderá al orden de entrada en el registro, referido, en su caso, al momento de subsanación de defectos o de aportación de la documentación completa justificativa del cumplimiento de los requisitos y condiciones para la concesión de subvenciones.

*Décimo tercero. Medio de comunicación o publicación.*

1. La práctica de las notificaciones de las resoluciones, tanto provisionales como definitivas, se realizará de conformidad con lo previsto en los arts. 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

2. Se ordena la publicación de la presente Resolución en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La presente resolución agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante este mismo órgano en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso-administrativo ante el correspondiente Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la fecha de su publicación, todo ella de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 de la Ley 39/2015 de 1, de octubre del Procedimiento Administrativo Común y artículos 8 y 14 de la Ley 29/1998, de 13. de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

San Sebastián, a 18 de junio de 2021.—La concejal delegada de Urbanismo Sostenible, Miren Nekane Arzallus Iturriza. (4468)